



Txistulariak. 3916XX01 (1979/12/18), © Truchuelo.

TXUPINAZOA

Olagain Udal Txistulari Elkarte, 40 urte

1979ko abenduaren 25ean atera zen lehenengo aldiz Andoaingo kaleetara Olagain Udal Txistulari banda. Joxe Mari Huizi, Joxe Goikoetxea eta Jose Luis Echeverria izan ziren sortzaileak eta La Salle eta Ikastolako ikasleekin batera, 8 laguneko taldea osatu eta "Zarra" kalejirarekin ekin zioten oraindik ere mantentzen duten ibilbideari. Ondokoak izan ziren lehenengo txistulariak: Jose Luis Echeverria, Xabier Jauregi, Iñaki Egibar, Xabier Esnal, Joxe Goikoetxea, Joxe Mari Huizi, Gotzon Huizi eta Felix Martinez de Lezea. Horrela sortu arren, berehala batu zitzaizkien taldera Jon Lizarribar, Xabier Ansa eta Xabin Mujika ere.

Talde honek egindako ibilbidea luzea bada ere, Andoainen txistuaren eta txistularien presentzia askoz ere luzeagoa da. Udal artxiboan idatzita aurkitzen dugun lehenengo erreferentzia 1747ko urriaren


15ekoa da, bertan agertzen dira Geronimo Elozegi eta Sebastian Elosegiri txistulari lanak egiteagatik egindako ordainketak; beraz, hor ditugu XVIII. mendeko bi txistulariren izenak. Urte batzuk aurrerago, 1765ean, Juan Bautista de Legarraren izena jasota dator.

Denboran salto eginez 1842. urtera iristen gara eta bi izen berri agertzen dira, Miguel Jose Berridi eta Jose Kruz Zaldias. Berridiren heriotzaren ondoren, Zaldias izendatu zuten udal txistulari, urteko 12 pesoren truke, beti ere jarrera ona eta esanekoa agertzen baldin bazen. Garai horretan Domingo Goycoechearen izena ere aipatzekoa da, 1846ko akta batean irakur dezakegu danbor-jole gisa jasotako soldatari esker.

1850. urtean izen berriak agertuko dira, José Antonio Enatarrriaga (danbor-jolea) eta Francisco haren seme gaztea.

XIX. mendean aurrera egin ahala (1894. urtean), Juan Bautista Aizpurua eta Francisco Fernández aipatu behar ditugu, txistularia eta danbor-jolea hurrenez hurren. Hauek, egin behar zuten ibilbidea oso luzea zela eta urtetik urtera toki eta ospakizun gehiagotan jo behar zutela argudiatuz, Ciriaco Eizmendi eta Fernando Urrutiaren laguntza izatea eskatzen diote Udalari, azken horrek silbotea jotzeko aukera ere eskainiz.

[...]
Teniendo al mismo tiempo presente que se halla vacante también la plaza de tambor, cuyo empleo ha ejercido en muchos años Domingo de Goycochea, vecino de esta villa hasta la última guerra civil, renuevan de conformidad sus mercedes su nombramiento y vuelven a elegirle de tal tambor al mismo Domingo de Goycochea para que con su virtud lo egerza, según ante y acompañe al músico juglar en todas las funciones, correrías de calle, alboradas en celebridad de días y demás actos en que se ofrezcan, y le asignan como a tal tambor el salario anual por ahora de diez pesos sencillos pagaderos de los fondos comunes a los plazos de costumbre
[...]



Udal Artxiboa, 1747ko Udal osokoaren akta / Archivo Municipal, Acta de pleno de 1747, LH/38bis.

Nabarmentzekoa da Aizpuru sendiak txistularitzan izan duen garrantzia mende batean zehar: aipatu dugun Juan Bautista Aizpurua Erauskin, bere semeak Ignazio eta Jorge Aizpurua Zuloaga eta, hirugarren belaunadian, Manuel Aizpurua, denak Udal Bandan txistulariak.

XX. mendean sartzearekin batera (1904an), Jose Ramon Echeverria eta Jose Maria Urrutiaren izenak agertzen dira. Horretaz gain, 1934. urtean bi txistulari eta atabalar batek herriko jai eta betebeharrekin jarraitzen zutela ere idatzita dago, izenik agertzen ez bada ere.

Agirietan ziurtatuta dagoenez, mendeetan zehar izan du txistuak presentzia Andoainen, bakarka, bina, atabalariek lagunduta eta azken urteotan taldean. Aipamen berezia merezi du 1988an taldean txertatu zen *txistu-bajuak*, partiturak lau ahotsetara interpretatzeko aukera zabaldu zuelarik. Alondegiko eraikinean hasi zituzten entseguak Olagain udal txistulari elkarteko kideek eta zuzendaritzari dago-kionez, hiru zuzendari izan dituzte 40 urteotan:

- 1979–1988: Jose Luis Echeverria (zuzendaria eta partaidea)
- 1988–2011: Javier Hernández Arsuaga (zuzendaria eta irakaslea)
- 2011–2019: Joxema Setien (zuzendaria eta partaidea)

1987an Olagain auzoko lokala ireki eta bertan jarraitu zuten entseguen, gaur arte.

40 urteko ibilbide honetan asko dira eskaintak kontzertu eta egindako irteerak, Baionan, Donostian, Madrilen eta Tolosan Easo abesbatzarekin, Lasarte eta Hernaniko abesbatza eta txistulariekin batera topaketak, ... Baina lanik handiena herrian bertan, Andoainen egin dute eta jarraitzen dute egiten.

Eta lan hori eskertu nahi dute herritarrek, 40 urte hauetan Andoainen ospatzen diren festa eta ospakizun guztietan edo gehienetan behintzat agertzen duten parte hartzearengatik, 40 urte daramatzate-lako Andoaingo kaleak alaitu eta musikaz betetzen, bakarrik zein herriko beste taldeekin batera, OLAGAIN UDAL TXISTULARIEN ELKARTEAK jaurtiko du Udaletxeko balkoitik 2019ko Sanjuanetako txupinazoa.

ZORIONAK!! OLAGAIN UDAL TXISTULARIEN ELKARTEARI! Eta jarrai kaleak alaitzen beste horrenbeste urtetan!!

Bibliografia:

- Jon Ansorena Múgica-k idatzirik "El txistu en Andoain" lana
- Andoaingo Udal Artxiboa
- 201. Txistulari aldizkaria
- Olagain Txistulari Elkarteak emandako informazioa